

2015/1/27



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herriko plaza 1 – 20150 Aduna

Tel: 943692571 Fax: 943690262

E-mail: udala@aduna.eus Web: www.aduna.eus

JOSTAILU BILKETA AIZTONDON

Aurreko hiru urteetan bezala, Aiztondoko Denbora Bankuan jostailu-bilketa antolatu dugu. Gaur egungo krisi-egoera dela eta, gure inguruko familia askok Gabonetako opariak erosteko arazoak dituzte. Denok ditugu etxean dagoeneko erabiltzen ez ditugun jostailuak, txikiegiak gelditu direlako, haurrak beraiekin aspertu direlako ... Pena da jostailu horiek etxean ahaztuta egotea eta guregandik hurbil bizi diren beste ume batzuk oparirik gabe geratzea. Animatu eta begiratu armairuetan!!

Adunan bezala, Alkizan eta Asteasun ere jostailuak eskatuko dituzte eta jasotako guztia bilduko dugu Asteasuko lokal batean, handik banaketa egiteko.

JOSTAILU-BILKETA ADUNAN:

Non: Udaletxean (idazkaritzaren ondoko gelan)

Noiz: abenduaren 1etik 11era

Ordutegia: astelehenetik ostegunera 8.30etatik 17:00etara

Ostiraletan: 30etatik 15:00etara (abenduaren 7 eta 8an itxita)



Mila esker zuen laguntzagatik!!

Aiztondoko Denbora Bankua – Itsaso

943693930

aiztondokodenborabankua@gmail.com

KZ GUNEKO BISITAK - ABENDUA

Abenduak 1, 15 eta 29

9:00 – 13:00



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Herriko plaza 1 – 20150 Aduna

Tel: 943692571 Fax: 943690262

E-mail: udala@aduna.eus Web: www.aduna.eus


ABENDUAK 3

EUSKARAREN EGUNA

ARRATSALDEKO 19.00ETATIK AURRERA

PINTXOLAGUNA

TXULOBELKARTEAN ETA UZTARTZAN



Pintxo eder bat janez euskaraz hitz egiteko aukera paregabea

EUSKARAREN ALDEKO TALDEA

OBRAK HERRIAN

Hurrengo asteetan obra eta txukunketa lan ezberdinak egingo dira herrian.

Batetik frontoiaren berritze lanak hasiko dira, bertan, aterpe berria eta segurtasun eta margoketa lanak egingo dira. Obrak irauten duen bitartean momentu ezberdinetan frontoia itxita egon daiteke.

Bestalde, Kultur aretoan ere, berritze lanak hasi dira. Hauek irauten duten bitartean Kultur aretoa itxia egongo da.

Umeen bi parketan ere txukunketa lanak egingo dira eguraldiaren arabera.